

## SUHILTZAILE ESPEZIALISTA

***BIGARREN ARIKETA***  
***Denbora, gehienez: 100 min.***  
***Galderak: 100***

EREDUA:

A

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun-orrian, egokitu zaizun eredia.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
  - Asmatuak: 1,00
  - Hutsegiteak: - 0,33
  - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.

**Eskerrik asko zuen laguntzagatik.**

**1.- Erreskatea, trafiko-istripuetan. Trafiko istripuetan norbera babesteko tresneria. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:**

- A) – Bi eratako eskularruak erabiliko ditugu; esku-hartzekoa eta, horren gainera, sanitarioa, bakterio-kutsadurari aurre egitekoa.
- B) – Talde hidraulikoak hotzean lan egiteko tresnatzat jotzen dira.
- C) – Ponpa arinek alde txar bat dute, erreminta bakarra erabiltzeko aukera baino ez dutela ematen.
- D) – Pascalen printzipioak azaltzen du ponparen funtzionamendua.

**2.- Erreskatea, trafiko-istripuetan. Errakorrak eta presio-mahukak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:**

- A) – Mahuka koaxialaren sistemari "Core" deritzo.
- B) – Errakor bikoitzetan arrak olioaren sarbidea adierazten du, eta emeak irteera.
- C) – Tenkagailu bikoitz baten hausturaren presioa 1.000 kg ingurukoa da, zentimedro koadroko.
- D) – Pascalen printzipioak azaltzen du ponparen funtzionamendua.

**3.- Erreskatea, trafiko-istripuetan. Erremintak. Adieraz ezazu nerbio-zapalduran esku-hartzeko egoki den erreminta:**

- A) – Zizaila
- B) – Zilindroa
- C) – Pedalak moztekoa
- D) – Bereizgailua

**4.- Erreskatea, trafiko-istripuetan. Erremintak. Aieraz ezazu erantzun OKERRA, zerra zabukariari gagozkiolarik:**

- A) – Orobat esaten zaio sable-zerra.
- B) – Erabiltzen denean, zarata eta bibrazio handia sortzen da.
- C) – Mozte orriaren abiadura gehitu egin behar da, moztu beharreko materialaren gogortasuna areagotzen bada.
- D) – Orri blokea ez dadin, lubrifikatu egiten da orria, mozte gunean.

**5.- Eraikuntza printzipioak. Materialen propietateak. Material jakin batek ahalegin zakar bat deformatu edo hautsi gabe jasateko duen gaitasunari honela deitzen zaio:**

- A) – Gogortasuna
- B) – Zailtasuna
- C) – Harikortasuna
- D) – Kohesioa

**6.- Eraikuntza printzipioak. Zurkaiztea. Adieraz ezazu zein zurkaizte mota den egokia lur koherentean, bide-eskariarekin eta 1,50 metroko sakoneran egindako zanga baterako:**

- A) – Ez dago zurkaiztu beharrik
- B) – Arina
- C) – Erdi gatzatua
- D) – Gatzatua

**7.- Eraikuntza printzipioak. Habeak. Adieraz ezazu nola esaten zaien portikoak elkartzen dituzten habeak:**

- A) – Gatzari
- B) – Eskora-habe
- C) – Txarrantxa
- D) – Habexka

**8.- Eraikuntza printzipioak. Sua eta eraikinak. Produktu batek D-S3,d0 sailkapena duelari, hauxe adierazi nahi du:**

- A) – Erregaia da, erdi-mailako ekarpena egiten dio suari, ke oso opakoa sortzen du eta ez du partikula gartuen erorketarik eragiten.
- B) – Erregaia da, ekarpen handia egiten dio suari, ke oso opakoa sortzen du eta ez du partikula gartuen erorketarik eragiten.
- C) – Erregaia da, oso ekarpen mugatua egiten dio suari, sortzen duen keak erdi-mailako opakotasuna du eta ez du partikula gartuen erorketarik eragiten.
- D) – Erregaia da, oso ekarpen mugatua egiten dio suari, sortzen duen keak erdi-mailako opakotasuna du eta partikula gartuen erorketa eragiten du.

**9.- Eraikuntza printzipioak. Sua eta eraikinak. Hauek dira metalezko egituren ezaugarriak:**

- A) – Ez dira erregaiak; dilatazio eta eroankortasun termiko handia; masa eta arrisku-azalera urria.
- B) – Ez dira erregaiak; dilatazio eta beroarekiko erresistentzia mekaniko handia; masa eta arrisku-azalera urria.
- C) – Dilatazio eta arrisku-azalera handia; beroarekiko erresistentzia mekaniko eta masa txikia.
- D) – Dilatazio eta arrisku-azalera urria; beroarekiko erresistentzia mekaniko eta masa handia.

**10.- Eraikuntza printzipioak. Sua eta eraikinak. Hauek dira hormigoi armatuzko egituren ezaugarriak:**

- A) – Ez dira erregaiak; dilatazio eta eroankortasun termiko urria; masa eta arrisku-azalera handia.
- B) – Ez dira erregaiak; dilatazio, beroarekiko erresistentzia mekaniko, masa eta arrisku-azalera urria.
- C) – Ez dira erregaiak; dilatazio, beroarekiko erresistentzia mekaniko eta arrisku-azalera urria.
- D) – Dilatazio eta arrisku-azalera urria; beroarekiko erresistentzia mekaniko eta masa handia.

**11.- Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. Oinarrizko kontzeptuak. Erregai batek lurruna erreuntza jarraitua ahalbidetzeko nahikoa abiadan aireratzten dueneko tenperaturari honela esaten zaio:**

- A) – Pizte puntua
- B) – Gartzte puntua
- C) – Berezko sutze puntua
- D) – Flash-Point

**12.- Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. Oinarrizko kontzeptuak. Adieraz ezazu produktu hauetatik zeinek duen bero espezifiko txikiagoa:**

- A) – Ura
- B) – Silizioa
- C) – Kobrea
- D) – Igeltsua

**13.- Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. Oinarrizko kontzeptuak. C motako su bati buruz ari garelarik, honetaz ari gara:**

- A) – Erregai mota gasa den su bati buruz.
- B) – Erregai mota airea den su bati buruz.
- C) – Solido likidogarrien su bati buruz.
- D) – Korrante elektrikoak sortutako edo halakorik dagoen su bati buruz.

**14.- Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. Suaren teoria. Adieraz ezazu, gas hauen artetik, zein den sukoitasun balio tipiko handiena duena:**

- A) – Hidrogenoa
- B) – Propanoa
- C) – Gasolina
- D) – Butanoa

**15.- Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. Suaren teoria. Aieraz ezazu erantzun OKERRA, sute bateko gasei gagozkielarik:**

- A) – Zenbat eta diluituago diren gasak sute batean, argiagoak dira keak.
- B) – Itzaltze lanen ondorioz sortzen den ur-lurrunik ke zuriska sortzen du.
- C) – Gai oso energetikoen gasek bortizki hartzen dute arnasa.
- D) – Gai haritsuetatik sortzen diren gasak, normalean, hotzean erretzen dira.

**16.- Basoetako suteak. Sutea, nagusiki, horbelak, pinu-azikulek edo arte-oihanpeak sortua denelarik, honetaz ari gara:**

- A) – Larre-sua.
- B) – Sastraka-sua.
- C) – Basobera-sua.
- D) – Adaburu-sua.

**17.- Basoetako suteak. Haizeak orduko 25 kilometroko abiadura badu eta noranzkoa 150 eta 180 graduren artekoa, honetaz ari gara:**

- A) – Haize arina, ipar osagaiarekin.
- B) – Haize orokorra, mendebalde osagaiarekin.
- C) – Haize arrunta, ekialde osagaiarekin.
- D) – Neurritzko haizea, hego osagaiarekin.

**18.- Basoetako suteak. Honi lotua dago Foën efektua:**

- A) – Haize orokor edo gradiente-haizeak.
- B) – Basoetako suteetan sortzen diren haizeak.
- C) – Haize topografikoak.
- D) – Haraneko haizeak.

**19.- Suteen prebentzioa. Eraikuntzaren Kode Teknikoa. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Sektorizazioa DB-SI-2-n —kanpoko hedapena— jasotzen da.
- B) – Instalazioetako pasaguneak DB-SI-1-n —barruko hedapena— jasotzen da.
- C) – Eslailerak DB-SI-3-n —okupatzaileen ebakuazioa— jasotzen dira.
- D) – Eraikinen ingurunea DB-SI-5-n —suhiltzaileen esku-hartzea— jasotzen da.

**20.- Suteen prebentzioa. Industria-establezimenduak. Eraikin bat edo zenbait osorik hartzen dituen establezimendua, gertueneko eraikinetik hiru metro baino gehiagora dagoena, honelakotzat jotzen da:**

- A) – A motakoa
- B) – B motakoa
- C) – C motakoa
- D) – D motakoa

**21.- Suteen prebentzioa. Industria-establezimenduak. Egiturak suarekiko duen erresistentzia. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Beti ez da beharrezko egiturak denbora jakin batez erresistitzea sua.
- B) – Sutearekiko gutxieneko erresistentzia bat bermatuta egon behar da beti.
- C) – Erresistitzen ez badu, gaztigatu egin behar zaie suhiltzaileei, eraikinaren sarreran kartelak jarritz.
- D) – Sekula ez da uste izan behar eraikinean kartelik ez badago denbora jakin batez erresistituko duela sua.

**22.- Arrisku naturalak. Adieraz ezazu arrisku biotikoa:**

- A) – Sumendiak.
- B) – Eguzki erradiazioa.
- C) – Fanerogamak.
- D) – Isosistak.

**23.- Arrisku naturalak. Lurrikarak neurtzeko MSK eskala. Pertsona ugari, izututa, kalera ateratzen direlak, batzuk oreka galtzen, kristalak hausten eta liburuak apaletatik erortzen, eta eraikinetan kalte moderatuak sortzen direlarik, zein maila litzateke:**

- A) – III
- B) – IV
- C) – V
- D) – VI

**24.- Arrisku naturalak. Hauxe da tornado bat:**

- A) – Bat-bateko ekaitza, 180 km arteko haize parrastatsuekin.
- B) – Presio baxuko sistema bat, euri eta elektrizitate jarduerarekin, ipar hemisferioan erloju-orratzen kontrako noranzkoan biratzen duten haizeekin.
- C) – Orduko 118 km-tik gorako haizeak dituen zikloa.
- D) – Zurrunbilo bortitz bat, itsasoaren gainean badabil 'tragarroi' esaten zaiona.

**25.- Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. Gai arriskutsuen sailkapena. Errekuntza espontaneo gertatzeko arriskua duten gaiak honela sailtzen dira:**

- A) – 1. mota
- B) – 2. mota
- C) – 3. mota
- D) – 4. mota

**26.- Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. Gai arriskutsuen sailkapena. Erabateko hermetikotasuna mota honetako gaien prebentzioaren ezaugarrietako bat da:**

- A) – 5. mota
- B) – 6. mota
- C) – 7. mota
- D) – 8. mota

**27.- Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. Gai arriskutsuen sailkapena. Gas-botilen arrisku nagusiaren arabera kolore-sailkapen berriak kolore hau ezartzen du gas toxikoentzat:**

- A) – Zuria
- B) – Horia
- C) – Gorria
- D) – Urdina

**28.- Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. Gai arriskutsuen sailkapena. Sugar bat zirkulu baten gainean, hauxe adierazten duen ikur osagarria da:**

- A) – Erregarria
- B) – Gas konprimatu ez sukoia
- C) – Peroxido organikoa
- D) – Ura ukitzen dutelarik gas sukoiak askatzen dituzten gaiak

**29.- Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. Babes-mailak. NBQ jantzia babes-maila honen barruan dago:**

- A) – I maila
- B) – II a maila
- C) – II b maila
- D) – III maila

**30.- Arnas babeserako ekipoak. Toxikotasuna suteetan eta arnasketa-arriskuak. Sute batean askatzen den CO maila, honen mende egongo da: (Adierazi baieztapen OKERRA)**

- A) – Erregai mota eta kopurua
- B) – Aireztapen maila (zenbat eta aireztapen gutxiago, orduan eta CO gehiago askatuko da)
- C) – Erretze abiada (zenbat eta azkarragoa, orduan eta CO gehiago askatuko da)
- D) – COren difusioa airean (oso altua)

**31.- Arnas babeserako ekipoak. Toxikotasuna suteetan eta arnasketa-arriskuak. Adieraz ezazu errekontza-gas hauetatik zein ez dagoen gizakiarentzat kaltegarrien diren katalogoan:**

- A) – Amoniakoa
- B) – Helioa
- C) – Anhidrido sulfurikoa
- D) – Azido klorhidrikoa

**32.- Arnas babeserako ekipoak. Iragazkiak. Adieraz ezazu bikote hauetatik zein ez den zuzena:**

- A) – HG - Merkurioa
- B) – B - Iodo erradioaktiboa
- C) – E - Horia
- D) – Lurrun organikoak - Marroia

**33.- Arnas babeserako ekipoak. Ekipo autonomoak. Botilan dagoen presioari buruzko informazioa ematen duen tresnari honela deitzen zaio:**

- A) – Manometroa
- B) – Presio-erruladorea
- C) – Erreguladorea
- D) – Maskara

**34- Sua itzaltzeko baliabideak. Errakorrak. DIN-STORZ; honi egiten dio erreferentzia:**

- A) – diametro handiko mahuka malguetan erabiltzen den errakor mota bati
- B) – 25 eta 70 cm bitarteko diametroa duten mahuketan erabiltzen den errakor mota bati
- C) – sekzio ezberdineko mahuka zatiak lotzeko aukera ematen duen tresna bati
- D) – mahuka batetik bi ateratzeko aukera ematen duen lotura-elementu bati

**35- Sua itzaltzeko baliabideak. Su-itzalgailu eramangarriak. Presurizatze sistemaren arabera, su-itzalgailu bat honela sailka daiteke:**

- A) – karbono dioxidokoa
- B) – haloikoa
- C) – 20 kilotik beherakoa
- D) – presio itsatsikoa

**36.- Oinarrizko hidraulika. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Gorputz baten masa kilogramoetan neurtzen da.
- B) – Gorputz baten pisua newtonetan neurtzen da.
- C) – Substantzia baten pisu espezifikoak kilopondioetan neurtzen da.
- D) – Biskositatea segundoko kilometrotan neurtzen da.

**37.- Oinarrizko hidraulika. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) –  $1 \text{ atm} = 760 \text{ mm Hg} = 1 \text{ kgf/cm}^2$
- B) –  $1 \text{ atm} = 1,033 \text{ at}$
- C) –  $1 \text{ Newton} = 1 \text{ Pa /m}^2$
- D) –  $1 \text{ bar} = 100.000 \text{ Pa} = 10 \text{ m.c.a.}$

**38.- Oinarrizko hidraulika. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Presioa = Dentsitatea x grabitatea x altuera
- B) – Indarra = Presioa x Sekzioa
- C) – Likido baten irteera-abiada sakontasunarekiko eta bere norabide perpendikularrekiko proportzionala da.
- D) – Pradoxa hidrostatiakoak azaltzen du zergatik presioaren balioa beti dagoen azalera batean dagoen likido kopuruaren mende.

**39.- Oinarrizko hidraulika. Likido baten altuera-aldaketa menderatzeko —haren mugimenduan— beharrezko den energiari honela esaten zaio:**

- A) – Energia potentziala
- B) – Fluidoaren presio energia
- C) – Energia zinetikoa
- D) – Bernoulliren faktorea

**40.- Oinarrizko hidraulika. Ponpak. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Ponpa zentrifugoak ponpa dinamiko mota bat dira, zeinen fluxua ardatzaren paralelo baita.
- B) – Ponpa axialek emari handia goratzen dute, altuera txira.
- C) – Pistoi-ponpak desplazamendu positiboko ponpa mota bat dira.
- D) – Presio-ponpak ponpa bolumetrikoko mota bat dira.

**41.- Banaketa sareak. Elektrizitatea. Bi punturen arteko tentsio-diferentzia hola neurtzen da:**

- A) – Voltak
- B) – Ampereak
- C) – Ohmak
- D) – Wattak.

**42.- Banaketa sareak. Elektrizitatea. Sua itzaltzeko tresnaren eta 66 kV-ko tentsioa duen puntu baten arteko distantzia gomendagarria hau da:**

- A) – 4 metro
- B) – 2 metro
- C) – metro 1
- D) – 0,5 metro

**43.- Banaketa sareak. Elektrizitatea. Lur hartunea duen gertuko egitura batean faila-korrontea ageri denean pertsona batek —harekin kontakturik izan gabe— bere oinen artean jasan lezakeen potentzial-diferentzialari honela esaten zaio:**

- A) – DPCF
- B) – GIS
- C) – Iragate tentsioa
- D) – Neutro flotatzailea

**44.- Banaketa sareak. Gasa. Atm bateko presioan erregai batek aire-lurrun nahastura sortzen duen eta pizte iturri baten beharrik gabe sutzen deneko gutxieneko tenperaturari honela esaten zaio:**

- A) – Lehergarritasun-muga
- B) – Autosutze tenperatura
- C) – Bero-ahalmena
- D) – Pizte tenperatura

**45.- Banaketa sareak. Gasa. UVCE hauxe da:**

- A) – gas-hodei bat, bere espantsioan, pizte iturri batera heltzen eta sutzen denean sortzen den fenomeno bat
- B) – GLP presio-biltegien arrisku espezifiko bat
- C) – presio-jario bat sutzean su-azkon bat sortzeko arriskua
- D) – “Jet Fire” baten ondoriozko arriskua

**46.- Erremintak. Motozerra. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:**

- A) – Harila, bujia eta esporak pizteko sistemaren parte dira.
- B) – Gasolina-biltegia, karburagailua eta aire-iragazkia elikatze sistemaren parte dira.
- C) – Ezpatak eta kateak mozteko organoa osatzen dute.
- D) – Lotura-, mozte eta gida-katebegiz osatuta dago katea.

**47.- Erremintak. Motozerra. Atzerako kate-zatiarekin mozten saiatzea berariazko prebentzio neurria da, hauxe saihesteko:**

- A) – Errebotekak
- B) – Zerratzean erortzea
- C) – Ibilbide-desbideratzeak
- D) – Atzerakadak

**48.- Erremintak. Disko-ebakigailua. Aluminioa mozteko hau gomendatzen da:**

- A) – Disko diamantatua
- B) – Aluminio-oxidozko disko urratzailea
- C) – Erreskate diskoa, metal-xaflazko euskarrian
- D) – Silizio-karburuzko disko urratzailea

**49.- Erremintak. Mozte oxiazetilenikoa. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:**

- A) – Bi botila, erregari bat (azetilenoa) eta erregai bat (oxigenoa), dago ekipoan
- B) – Azetilenoa kolorerik gabeko gasa da, sutan dagoenean ke ugari sortzen duena
- C) – Tara (S) hauxe da: Tara (A) + disolbatzailea atmosfera-presioan eta 15<sup>o</sup>ko tenperaturan asetzeko behar den azetilenoko kopurua
- D) – Oxigenoa kolorerik gabeko gas zaporegabe da, airearena baino dentsitate zertxobait handiagoa duena

**50.- Erremintak. Eskuzkoak. Erlaitz baten saneamendua egiteko erremintarik egokiena hauxe da:**

- A) – eraiste aizkora
- B) – igeltsero-mailua
- C) – kizkia
- D) – arrastalatzaila

**51.- Espainiako Konstituzioa. Eskubide eta betebeharrak. Adierazi aukera hauetatik zeinek ez duen salbuespenik:**

- A) – ohore-eskubidea
- B) – bizilekuaren bortxaezintasuna
- C) – elkartze eskubidea
- D) – zeregin eta kargu publikoetara sarbidea izateko eskubidea

**52.- Espainiako Konstituzioa. Eskubide eta betebeharrak. Adierazi eskubide hauetatik zeinek ez dakarren berekin Espainiako Konstituzioan ezarritako betebeharren bat:**

- A) – Espainia defendatzeko eskubidea
- B) – lanerako eskubidea
- C) – hezkuntzarako eskubidea (oinarrizko irakaskuntza)
- D) – sindikatze eskubidea

**53.- Autonomia Estatutua. Aginte legegilea. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdina osatuko du Eusko Legebiltzarra
- B) – Eusko Legebiltzarra onartezina da
- C) – Euskal Herriaren ordezkari izango diren senadoreak izendatzen ditu Eusko Legebiltzarrak
- D) – Lurralde historikoa da hauteskunde-barrutia

**54.- Autonomia Estatutua. Eusko Jaurlaritza. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Eusko Jaurlaritza kide anitzeko organoa da
- B) – Jaurlaritzako presidentea Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artean eta lehendakariak izendatuko du
- C) – Lehendakaria Estatuaren ohiko ordezkaria da autonomia erkidegoan
- D) – Eusko Jaurlaritza Euskal Herriko betearazte- eta administrazio-egitekoak dituen organoa da

**55.- Administrazio-prozedura. Herriarrei, herri-administrazioekin dituzten harremanetan, eskubidea dute... (Adieraz ezazu baieztapen OKERRA)**

- A) – alegazioak eta agiriak aurkezteko prozeduraren edozein alditan, entzunaldiaren izapidea izan aurretik
- B) – artxibo eta erregistroetako informazio pribatura sarbidea izateko
- C) – kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkikeen arauetan eskatzen ez den agiririk ez aurkezteko, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk
- D) – herri-administrazioen eta bertako langileen erantzukizuna eskatzeko, legez hala behar duenean

**56.- Administrazio-prozedura. Egintzen eraginkortasuna. (Adieraz ezazu baieztapen OKERRA)**

- A) – Herri-administrazioen administrazio-zuzenbidepeko egintzak baliozkotzat joko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, egintza horietan besterik esaten ez bada.
- B) – Jakinarazi egingo zaizkie interesdunei beren eskubide edo interesak ukitzen dituzten administrazioaren ebazpenak eta egintzak.
- C) – Edozein modu baliatuz egingo dira jakinarazpenak.
- D) – Administrazioaren egintzak argitaratu egin behar dira, prozedura bakoitzaren arauetan ezarrita badago, edo, eskumena duen organoaren iritziz, interes publikoak hala eskatzen badu.

**57.- Euskal Funtzio Publikoaren Legea. Eskubide eta betebeharrak. Herri-administrazioetako funtzionario izaera honako hauetan galtzen da: (Adieraz ezazu baieztapen OKERRA)**

- A) – interesdunak ahoz nahiz idatziz uko egiten diolarik, administrazioaren aurrean
- B) – espainiar nazionalitatea, Europako Batasuneko kide den beste Estatu batekoa edo beste edozein Estatutakoa galtzen delarik, alor horretako legedi orokorraren eta aplikagarriak diren nazioarteko ituneen arabera
- C) – zerbitzu berezietako egoeran, edozein Administrazio Publikotako beste kidego edo eskala batean jardunean egoteagatik edo familiaren bateratzeagatik borondatezko lan-utzialdiko egoeran eta seme-alabak jagoteko eskatutako lan-utzialdi egoeran deklaratu zireneko baldintza desagertuta, edo denbora igarota, jarduneko zerbitzura berriz sartzeko eskatu ez dutenek interes partikularrengatik borondatezko lan-utzialdi egoeran sartzeko behar hainbat benetako zerbitzu ez dutenean
- D) – nazionalitate aldatetarengatik

**58.- Euskal Funtzio Publikoaren Legea. Eskubide eta betebeharrak. Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, 70. artikuluan, funtzionarioek lizentzia ordaindua hartzeko eskubidea duten arrazoiak zehazten ditu. Adieraz ezazu OKERRA:**

- A) – sindikatu-mailako egitekoak betetzeko
- B) – egitekoa behar bezala betetzea eragozten duen gaisotasunagatik
- C) – barne-mailatan gora egiteko saioetan parte hartzeko
- D) – etxebizitzaz aldatzeagatik

**59.- Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Xedea. Adieraz ezazu OKERRA:**

- A) – emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea
- B) – bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko zenbait neurri arautzea
- C) – emakumeen autonomia sustatzea, eta gizarte, ekonomia zein politikan duten posizioa sendotzea
- D) – berdintasunezko gizartea lortzea, non emakume oro libre izango den bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, hala eremu publikoan nola pribatuan, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe

**60.- Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Diskriminazioari gagozkiolarik... Adieraz ezazu OKERRA:**

- A) – Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta -haurdun egonda edo ama izanda, esaterako-beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- B) – Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilita justifikatzeko modukoa denean.
- C) – Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.
- D) – Laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zeharkako bereizkeriatzat jotzen da.

**61.- Larrialdien Kudeaketari buruzko 1/1996 legea. Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak sortu eta mantentzeko eskumena honi dagokio:**

- A) – Eusko Jaurlaritzari eta ez besteri, Larrialdietarako Zuzendaritaren bitartez.
- B) – Foru Aldundiei eta ez besteri, beren lurralde esparruan.
- C) – udalerriei, eta ez besteri.
- D) – zerbitzua eskaintzera behartuta dauden udalerriei.

**62.- Larrialdien Kudeaketari buruzko 1/1996 legea. Suteak prebenitzeko zerbitzuen zereginak. Adieraz ezazu baieztapen OKERRA:**

- A) – Suteen kontra babesteko teknikak, instalazioak eta sistemak aztertu eta ikertzea.
- B) – Suaren kontrako lanak burutzea ezbeharretan eta bestelako larrialdi egoeretan.
- C) – Herri-administrazioek babes zibilaren alorrean sustatzen dituzten zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainetan parte hartzea.
- D) – Osasun sorospenaren bitartez, arriskuan dauden giza-bizitzetako laguntza ematea.

**63.- 20/1997 Legea, Irisgarritasunari buruzkoa. Irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak ezartzen ditu legeak... (Adieraz ezazu baieztapen OKERRA)**

- A) – hiri-ingurunerako.
- B) – eraikuntzetarako.
- C) – hezkuntzarako.
- D) – garraiorako.

**64.- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea. Kontzeptuak. Lanaren ondorioz edo harengatik jasandako gaixotasun, patologia eta zauriak...**

- A) – lanetik eratorritako kalteak dira.
- B) – laneko arriskuak dira.
- C) – «arriskutsuak izan daitezkeen» prozesu eta jardueri dagozkie.
- D) – «arriskutsuak izan daitezkeen» eragiketa, ekipamendu edo produktuei dagozkie.

**65.- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea. Langileek lanaren ondorioz arrisku larri eta hur-hurrekoa dutenean, edo izan dezaketenean... (Adieraz ezazu baieztapen OKERRA)**

- A) – Enpresaria behartuta egongo da ukitutako langile guztiak ahalik arinena informatzera, arrisku horren inguruan eta babesari dagokionez hartutako neurrien edo, hala denean, hartu beharreko neurrien inguruan.
- B) – Enpresaria behartuta egongo da neurri egokiak hartu eta jarraibide egokiak ematera, arrisku larria, hur-hurrekoa eta saihestu ezina dagoenean, langileek euren jarduera geldiarazteko aukera izan eta, behar izanez gero, lan egiten duten lekua berehala utz dezaten.
- C) – Enpresaria behartuta egongo da egoki dena agintzera, hierarkian gorago dagoen pertsonarekin harremanetan jar ezin daitekeen langilea, bere segurtasunarentzat, beste langile batzuen segurtasunarentzat edo enpresatik kanpoko edonoren segurtasunarentzat arrisku larri eta hur-hurrekoa dagoenean, arrisku horren ondorioak saihesteko egoeran izan dadin, langile horren ezaguerak eta beraren eskura jarritako baliabide teknikoak aintzat hartuta.
- D) – Edozein unetan, ordezkari sindikalek erabaki dezakete, kideen gehiengoarekin, arrisku horrek ukitutako langileen jarduera geldiaraztea.

**66.- Araba. Geografia eta geomorfologia. Parke zerrenda honetatik, adieraz zein den bikote OKERRA:**

- A) – Izki - Muela
- B) – Valderejo - Lalastra
- C) – Gorbeia - Baia
- D) – Urkiola - Maeztu

**67.- Araba. Geografia eta geomorfologia. Zerrenda honetatik —herriak eta horiek zeharkatzen dituzten ibaiak—, adierazi OKERRA:**

- A) – Durana - Zadorra
- B) – Subilla Morillas - Baia
- C) – Biasteri - Ebro
- D) – Santa Kurutze Kanpezu - Ega

**68.- Araba. Geografia eta geomorfologia. Kuadrilla eta udalerrri bikote hauetatik, adierazi OKERRA:**

- A) – Arabako kantabriar eskualdea - Zaldondo
- B) – Arabako Lautadako eskualdea - Iruña Oka
- C) – Arabako Mendialdeko eskualdea - Bernedo
- D) – Arabako Haranetako eskualdea - Lantarón

**69.- Araba. Geografia eta geomorfologia. Mendi hauetatik, adieraz ezazu zein ez den periferikoa, hau da, ez dagoen probintziaren mugan:**

- A) – Urkilla
- B) – Badaia
- C) – Toloño
- D) – Codes

**70.- Araba. Geografia eta geomorfologia. Mendi-zerrenda honetatik, adieraz ezazu zein den OKERRA:**

- A) – Aratz
- B) – Azazeta
- C) – Palomares
- D) – Ezkibel

**71.- Araba. Herriak. Zerrenda honetatik, adierazi zein herrik dituen 100 biztanle baino gutxiago:**

- A) – Dulantzi
- B) – Lantziego
- C) – Beranturi
- D) – Ihurre

**72.- Araba. Herriak. Zerrenda honetatik, adierazi zein herrik dituen 1.000 biztanle baino gehiago:**

- A) – Ekora
- B) – Villabuena
- C) – Aiara
- D) – Urizaharra

**73.- Araba. Ekoizpen sektoreak. Industrialde eta herri bikote hauetatik, adierazi OKERRA:**

- A) – Subillabide - Langraiz Oka
- B) – Goiaín - Rivabellosa
- C) – El Carrascal - Oion
- D) – Arabako Teknologia Parkea - Miñao

**74.- Araba. Ekoizpen sektoreak. Industrialde zerrenda honetatik, adieraz ezazu zein den mendebaldean dagoena:**

- A) – Araiako industrialdea
- B) – Jundizko industrialdea
- C) – Casablancako industrialdea
- D) – Amurrioko industrialdea

**75.- Araba. Ekoizpen sektoreak. Industrialde zerrenda honetatik, adieraz ezazu zein den luze-zabalena:**

- A) – Araiako industrialdea
- B) – Jundizko industrialdea
- C) – Casablancako industrialdea
- D) – Amurrioko industrialdea

**76.- Araba. Ekoizpen sektoreak. Turismoa. Zerrenda honetatik, adierazi zein herrik dituen interes kulturala izendatu duten ondasun higiezin gehien:**

- A) – Aiara
- B) – Iruña Oka
- C) – Zaldondo
- D) – Urizaharra

**77.- Araba. Komunikazioak. Adieraz ezazu komunikazio-bide hauetatik zeinek duen Ekialde-Mendebalde orientazioa, probintzia zeharkatzean:**

- A) – A-2622
- B) – AP-68
- C) – N-240
- D) – A-625

**78.- Araba. Komunikazioak. Adieraz ezazu komunikazio-bide hauetatik zein doan, zatirik handienean, trenbide batetik gertu:**

- A) – A-2622
- B) – AP-68
- C) – N-240
- D) – N-622

**79.- Araba. Komunikazioak. Adieraz ezazu ibilbide hauetatik —abiapuntua - bitartekoak - helmuga— ez den gomendagarria batetik bestera joateko:**

- A) – Gasteiz - Langraiz - Subilla - Pobes
- B) – Gasteiz - Urizaharra - Leza - Biasteri
- C) – Oion - Biasteri - Bastida - Lagran
- D) – Komunio - Puenteleña - Espejo - Villanueva Gobiarn

**80.- Araba. Komunikazioak. Adieraz ezazu ibilbide hauetatik —abiapuntua - bitartekoak - helmuga— ez den gomendagarria batetik bestera joateko:**

- A) – Murgia - Altube - Amurrio - Laudio
- B) – Santa Kurutze Kanpezu - Bernedo - Lagran - Urizaharra
- C) – Agurain - Kontrasta - Done Bikendi Harana - Santa Kurutze Kanpezu
- D) – Bóveda - Villanueva Gobiarn - Gesaltza Añana - Puenteleña

**81.- Gasteiz. Udalerrria. Adierazi herri hauetatik zein dagoen mendebaldean:**

- A) – Berroztegieta
- B) – Otogoien
- C) – Ilarratza
- D) – Arangiz

**82.- Gasteiz. Udalerrria. Adierazi herri-bikote hauetatik zein dauden elkarrengandik urrutien:**

- A) – Subilla - Zumeltzu
- B) – Andetxa - Mandoia
- C) – Matauku - Jungitu
- D) – Mendiguren - Monasteriiguren

**83.- Gasteiz. Udalerrria. Adierazi herri eta errepide bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Arangiz - N 622
- B) – Gamarra - N 240
- C) – Lermenda - N I
- D) – Gometxa - A 104

**84.- Gasteiz. Industrialdeak. Adierazi industrialde hauetatik zein dagoen hegoaldean:**

- A) – Oreitiasolo
- B) – Gamarra
- C) – Ehari-Gobeu
- D) – Betoñu

**85.- Gasteiz. Industrialdeak. Lotu Zurrupitieta kalea dagokion industrialdearekin:**

- A) – Ehari-Gobeu
- B) – Gamarra
- C) – Oreitiasolo
- D) – Jundiz

**86.- Gasteiz. Industrialdeak. Lotu Gasteizko Garraio eta Logistika Zentro Intermodala dagokion industrialdearekin:**

- A) – Ehari-Gobeu
- B) – Gamarra
- C) – Olarizu
- D) – Jundiz

**87.- Gasteiz. Eraikin bereziak eta kaleak. Adieraz ezazu zein den bikote okerra:**

- A) – Camping-car - Uleta gaina
- B) – Ibaiondoko gizarte etxea - Landaberde kalea
- C) – Hegoalde gizarte etxea - Alberto Schommer kalea
- D) – Mendizorrotzeko kiroldegia - Amadeo Garcia de Salazar plaza

**88.- Gasteiz. Eraikin bereziak eta kaleak. Adieraz ezazu zein den bikote okerra:**

- A) – Santa Maria katedrala - San Markos kantoia
- B) – Montehermoso jauregia - Errementari kalea
- C) – Goiuri jauregia - Aihotz plaza
- D) – Bendaña jauregia - Aiztogile kalea

**89.- Gasteiz. Biztanleria. Adieraz zein den informazio okerra:**

- A) – Gasteizko biztanleria 234.000 pertsona ingurukoa da.
- B) – Emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa da.
- C) – “20 urtetik beherakoak” adin-taldekoen ehunekoia eta “65 urtetik gorakoak” adin-taldekoena antzekoak dira, biztanleriaren % 18-19 ingurukoak.
- D) – Atzeritarrak % 10etik behera dira.

**90.- Gasteiz. Kaleak. Adierazi ezazu kale hauetatik zeinek duen ekialde-mendebalde norabidea:**

- A) – Gasteiz hiribidea
- B) – Unibertsitateko ibilbidea
- C) – Gamarrako atea
- D) – Jacinto Benavente kalea

**91.- Gasteiz. Kaleak. Adieraz ezazu auzo hauetatik zeinek ez duen futbol zelairik:**

- A) – Zaramaga
- B) – San Martin
- C) – Zabalzana
- D) – Betoñu

**92.- Gasteiz. Kaleak. Adieraz ezazu ‘auzo - gizarte etxe’ bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Pilar - Landatxo
- B) – Sansomendi - Lakua 03
- C) – San Kristobal - Hegoalde
- D) – Zaramaga - Iparralde



**93.- Gasteiz. Komunikazioak. Adieraz ezazu ibilbide hauetatik —abiapuntua - bitartekoak - helmuga— ez den gomendagarria batetik bestera ibilgailu motordun batekin joateko:**

- A) – Mendizorrotzeko kiroldegia - Fontetxako Gaztelua - Pedro Asua - Txagorritxuko ospitalea
- B) – Txagorritxuko ospitalea - Euskal Herria bulebarra - Juan Garai - El Boulevard merkataritza gunea
- C) – El Boulevard merkataritza gunea - Zaramaga kalea - Legutianoko atea - Iparralde gizarte etxea
- D) – Iparralde gizarte etxea - Herrandarren kalea - Olagibel kalea - Santiago ospitalea

**94.- Gasteiz. Komunikazioak. Adieraz ezazu ibilbide hauetatik —abiapuntua - bitartekoak - helmuga— ez den gomendagarria batetik bestera ibilgailu motordun batekin joateko:**

- A) – Europa biltzar etxea - Gasteiz hiribidea - Elvira Zulueta kalea - Mendizorrotzeko kiroldegia
- B) – Mendizorrotzeko kiroldegia - Salbaterrabide - Agirre Miramon kalea - Irakasle Eskola
- C) – Irakasle Eskola - San Antonio kalea - Florida kalea - Iradier Arenako plaza
- D) – Iradier Arenako plaza - Herrandarren kalea - Olagibel kalea - Judimendiko gizarte etxea

**95.- Gasteiz. Adierazi 'eraikin berezia - gertuko kalea' bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Eusko Legebiltzarra - Becerro Bengoa kalea
- B) – Eskoriatza-Eskibel jauregia - Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen kalea
- C) – Arabako Foru Aldundia - Posta kalea
- D) – San Pedro eliza - Errementari kalea

**96.- Gasteiz. Adierazi 'eraikin berezia - gertuko kalea' bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Udal Artxiboa - Unibertsitateko ibilbidea
- B) – Enpresa Ikasketen U.E. - Mateo Muxika Apezpikuaren kalea
- C) – Biltzar Nagusiak - Vicente Goikoetxea kalea
- D) – San Prudentzio egoitza - Frantzia kalea

**97.- Gasteiz. Adieraz ezazu 'zona - kale' bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Zaramaga - Fontetxako Gazteluaren kalea
- B) – San MartIn - Pablo Uranga Margolariaren kalea
- C) – Pilar - Uruguai kalea
- D) – Lakua - Gabriel Zelaia kalea

**98.- Gasteiz. Adieraz ezazu 'zona - kale' bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Ariznabarra - Gaztelako atea
- B) – Arriaga - Biasteriko Taldearen kalea
- C) – Santa Luzia - Federico Baraibar kalea
- D) – Salburua - Europa ibilbidea

**99.- Gasteiz. Adieraz ezazu 'zona - kale' bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Zabalgana - Joan Karlos I.aren hiribidea
- B) – San Kristobal - Jauregilanda kalea
- C) – Gazalbide - Don Bela Kondearen kalea
- D) – Lakuabizkarra - Iruñea kalea

**100.- Gasteiz. Adieraz ezazu 'zona - kale' bikote hauetatik zein den OKERRA:**

- A) – Arantzabela - Toni Morrison kalea
- B) – Oreitiasolo - Izarbenta kalea
- C) – Zabalgunea - Alaba Jeneralaren kalea
- D) – Koroatzea - Larrugile kalea